

GURE LURRA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Etorkizuna bermatzeko unea

BASOGINTZA:

Gipuzkoak baso sektore indartsu eta
jasangarria behar du aurrera egiteko.

3. ALEA: URTARRILA 2021

AURKIBIDEA



ORAINA ETA ETORKIZUNA

3. Orr.

Jabier Larrañaga, diputatu berriaren aurkezpena.



COVID-19ARI AURRE EGINEZ

4. Orr.

Azpisektore kaltetuenen artean 893.074 euro banatu ditu Aldundiak.



RETOS Y PRESUPUESTOS PARA EL 2021

6. Orr.

Retos y presupuestos de la Diputación para el medio rural.



BASOGINTZA

10. Orr.

Baso sektorea indartzea eta etorkizuna bermatzea gure lehentasuna da.



ETXEKOAK KANPAINA

16. Orr.

Bertako produktuen kontsumoa sustatzeko sentsibilitate kanpaina.



DIGITALIZACIÓN DE SUELO RURAL

18. Orr.

La Diputación marcará todos los terrenos rurales de Gipuzkoa mediante GPS.



MINGAIN URDINA ETA IBR

20. Orr.

Gipuzkoa abere osasun gaietan aitzindari.



NERE ETXETXOTIK

23. Orr.

Bertako indigenak. Xabier Euzkitze.



HERRI TXIKIAK

24. Orr.

Pandemia garaian landa gunerako fluxua handitu egin da.



ENTREVISTA

26. Orr.

Jaime Izquierdo, experto en desarrollo rural.



GIPUZKOAKO PARKETXE SAREAREN 10. URTEURRENA

28. Orr.

Elkarriketa: Luis Mari Zaldua, GPSko zuzendaria.



ALBISTE LABURRAK

30. Orr.

Landa alorraren barne egituraketa (30. Orr.)

Gipuzkoako Foru Aldundiko ateak zabalik (34. Orr.)



Gipuzkoako lehen sektorea: oraina eta etorkizuna

Askotan, behar beste ez diegu erreparatzen beti hor egon diren pertsona eta gauzei. Hala gertatu da batzuetan lehen sektorean lan egiten duzuenekin; landa ingurunearen eta hirien artean zabalduz joan den distantziaren poderioz, oharkabean igaro izan dela zuen jarduna, eta gure lurraldeari egiten diozuen ekarpena. Pandemiak, ordea, kolpetik jarri du mahai gainean zeinen garrantzitsua den lehen sektore sendo eta lehiakor bat edukitzea, elikagaiez eta lehengai berriztagarriez hornituko gaituena. Bizia emango diena gure herriei, lurralde oreka bermatuz. Gure paisaia eta natur ingurunea kudeatuko dituen, arnasbide izaten jarrai dezaten.

Kontzientziazio prozesu horretaz baliatuz, eta mundu mailan eredu sozioekonomiko jasangarriago bateranzko trantsizioa bolo-bolo dugun honetan, aukera aparta dugu gure lehen sektoreak krisialdiaren aurretik zituen erronkei indarberriturik heltzeko. Modernizazioa, belaunaldi aldaketa, etengabeko hobekuntza, errentagarritasuna, dibertsifikazioa... askotarikoak dira, sektoreko eragileekin elkarlanean, martxan diren ekimenak, eta baita laster etorriko direnak ere. Esku artean duzun Gure Lurra aldizkariko hirugarren ale hau, horietako batzuen erakusgarri.

Izan ere, etorkizuna eta lehen sektorea batera doaz. Datozen hamarkadetako Gipuzkoa ezin da irudikatu nekazari, abeltzain, sagardogile edo baso-jaberik gabe. Bioekonomiaren aldeko apustuaren testuinguruan, gure lurraldearentzat balio erantsia sortzen jarraituko duen kateak gabe. Klima aldaketari aurre egiten lagunduko duen sektorerik gabe, CO2a xurgatuz, lurraldea kudeatuz, eta gertuko ekoizpena eta kontsumoa bultzatuz, besteak beste.

Orain dugu momentua oinarriak jartzeko, beti hor egon zaretenok bertan jarrai dezazuen, eta berriak ere etor daitezten. Aldundia bidelagun izaten jarraituko duzue, bai egungo krisiaren inpaktua arinduko duten neurriak lantzerakoan, eta baita sektorearen eraldaketan lagunduko duten ekimenak martxan jartzerakoan. Landa Ingurune departamentuko ardura hartu berri dudan honetan, balio dezatela lerro xume hauek konpromiso zintzo hori adierazteko, eta baita nire burua aurkezteko ere. Elkarlanerako prest.

Jabier Larrañaga Garmendia

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurune diputatua

GURE LURRA aldizkaria

ARGITARATZAILEA:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurunea eta Landa Ingurune alorra.

Gipuzkoa plaza z.g. 20004, Donostia.

943 112 198 / 943 112 054

ERREDAKZIOA ETA DISEINUA: ARAZI

PORTADAKO ILUSTRAZIOA: ARAZI

ARGAZKIAK: Fotoetxe, Baso Elkarte, Neiker eta Legazpiko Udala

INPRIMATZAILEA: MICHELENA ARTES GRÁFICAS S. L.

ALE BAKOITZAREN KOSTUA: 1,52 €

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartutako kostua.




Aldizkari hau basoen ustiaketa jasangarriaren bitartez eskuraturiko paperarekin sortua dago.

Covid-19ari aurre eginez

Azpisektore kaltetuenen artean 893.074 euro bideratu ditugu

Aldundiak, lehen sektoreari laguntzeko krisi plan bat jarri zuen abian, departamentuko partida ekonomikoak eta programak berregokituz, aurrekontu orokorrari murrizketarik gabe eutsita, eta pandemiak eragindako beharrei erantzunez. Plan honek bi helburu nagusi zituen, jarduera ekonomikoari eta enpleguari eustea eta kalterik gehien jasan duten azpisektoreei laguntzea.

Bigarren helburuari dagokionez, Erreskate Planaren barruan, dirulaguntza zuzenak bideratu zaizkie azpisektore kaltetuenei: artzaintza, sagardoa, txakolina, nekazalturismoak, lore mozketak eta zezenketetan aritzen diren ustiatzeak, hain zuzen. Aldundiak **893.074 euro** banatu ditu laguntza hauetara eta 290 ustialeku izan dira onuradunak.



	ARDI ETA AHUNTZ AZIENDA	SAGARDOAREN ELABORAZIOA	TXAKOLINAREN ELABORAZIOA	LANDARE APAINGARRIAK	NEKAZARITZA-TURISMOA	GANADU ZUHARRA	GUZTIRA
ZENBATEKOA (EURO)	323.336	237.460	115.405	23.250	169.572	24.050	893.074
NEURRIAREN %	%36	%27	%13	%3	%19	%3	%100
ONURADUNAK	141	52	26	5	60	6	290

Haciendo frente al Covid-19

La Diputación ha destinado 893.074 euros para ayudar a los subsectores más afectados y han sido, en total, 290 las explotaciones beneficiadas.

Mahats-bilketarako sasoiko langileak kontratatzeako laguntzak

Covid-19ak txakolinaren sektorean sortutako galerak direla eta, Aldundiak mahats-bilketarako laguntza bereziak atera ditu. Helburua da Getariako Txakolina Jatorrizko Izendapenean inskribatutako mahastizainek eta upategiek mahats-bilketa kanpainarako sasoikako langileak kontratatzean baldintza egokiak bete ahal izateko laguntzak ematea. Deialdi honetarako hasierako aurrekontua 100.000 eurokoa zen, baina eskaera kopurua dela eta 168.284 eurora igo da. 23 mahastigile izan dira eskaera egin dutenak eta bakoitzak lan egindako egun bakoitzeko 25 euroko laguntza jasoko du.



Mariano Imaz
(Artzaina. Ataun)

“Laguntzak beharrezkoak ditugu jasandako kalteak eragindako zuloak tapatzeko”

“Covid-19ak zuzenean eragin dio artzaintzari, izan ere, arkumeen salmenta garaian harrapatu gintuen eta prezioa izugarri jaitsi zen. Aurrera begira ere, kezka handia dugu, merkatuan ezegonkortasun handia baitago. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak berandu datoz, baina beharrezkoak ditugu jasandako kalteak eragindako zuloak tapatzeko. Ni bezala urteak lanean daramatzagunok koltxoi bat egina dugu eta itxaron dezakegu, baina gazteen egoera benetan kezagarria da, inbertsioak egin dituzte eta bankuen ordainketei aurre egin behar baitiete”.



Eneko Goiburu
(Nekazalturismoa eta artzaina. Segura)

“Laguntza hauek behar-beharrezkoak ditugu, nahitaezkoak aurrera ateratzeko”

“Nekazalturismoaz gain Idiazabal Jatorri Izendapena duen gazta ekoizten dugu eta bi arloetan eragin zuzena izan du Covid19ak. Nekazalturismoen sektoreari dagokionez, aurtan lau hilabete soilik lan egingo ditugula esan dezakegu eta horrek kalte handia eragin du, eta hori abuztuan ondo lan egin genuenik eta arnas pixka bat eman zigula. Ardiei dagokionez, egoera pertsonalagoa da, gure kasuan produkzio txikia dugu eta batez ere turistek saltzen diegu, aurtan, ordea, jende gutxiago ibili denez gehiago kosta da saltzea. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzak behar-beharrezkoak ditugu, nahitaezkoak aurrera ateratzeko, izan ere, hileroko gastuei berdinduz aurre egin behar diegu. Bestela, landetxeen kasuan behintzat, itxi eta gehiago ez irekitzeko arriskua dago”.



Nere Lizeaga
(Sagardogilea. Donostia)

“Ideia eta aukera berriak garatzen ari gara begirada 2021ean jarritz, eta online salmentari ere ekin diogu”

“Enpresa askori bezala gogor eragin digu, batetik txotx garaia erdiz-erdi moztu zigulako eta bestetik ostalaritza geldirik egonda sagardo salmentak asko jaitsi direlako. Zuzeneko salmentak eta ditugun alimentazioko salmentak dira irteera bakarra gaur egun. Ahalik eta ondoena daramagu, Euskal sagardoa egitea bukatuta, gainerako lan horiek ondo egin eta aurrera begira gauzak ahalik eta ondoena planifikatzea da oraingo gure lana. Ideia eta aukera berriak garatzen ari gara begirada 2021ean jarritz, eta online salmentari ere ekin diogu. Gipuzkoako Foru Aldundiarena bezalako laguntzak oso ondo etorri zaizkigu egoera zail honetan, momentuko estuasunetik lasaia ateratzen laguntzen digute. Baina garrantzitsuenak berriz ere aktibitatea martxan jartzea da, lanerako gogoz gaude. Badakigu gure negozioak egokitu egin beharko ditugula, datorrena ez dela iragana bezalakoa izango. Sagardotegi bezala eta sektore bezala egoera berrira egokitzeko pausoak prestatzen ari gara”.

Retos para el 2021

Partiendo de los objetivos recogidos en el Plan Estratégico 2020-2023 y los ejes estratégicos definidos, de cara al ejercicio 2021 se plantean los siguientes retos:

1. Consolidar y reforzar los planes de ayuda.

De cara al 2021 la Diputación tiene como objetivo consolidar y reforzar las siguientes ayudas:

• Ayudas para la modernización de explotaciones agrarias:

La convocatoria del 2021 saldrá con una partida inicial de 3,5 millones de euros, frente a la partida inicial de 2,6 millones de euros de 2020. En cualquier caso, hasta la fecha esta convocatoria ha sido reforzada en cada ejercicio para responder a todas las solicitudes que cumplen los requisitos. Este seguirá siendo el objetivo para el ejercicio 2021.

• **Gazte Plana:** Se continuará con el mismo esfuerzo realizado en el ejercicio 2020 con el fin de atender todas las solicitudes de emprendedores jóvenes. Desde los inicios del programa, 275 jóvenes han iniciado su proyecto profesional con apoyo del programa, 156 lo han hecho cogiendo las riendas de explotaciones de familiares, garantizando el relevo generacional, y 112, abriendo nuevos negocios.

• Agroambientales, agricultura ecológica e Indemnizaciones Compensatorias de Montaña (ICMs)

Se incrementan estas tres partidas pasando a un total de 4.455.000 euros, también con el fin de poder atender todas las solicitudes que se presenten.

Se trata de ayudas directas dirigidas a los baserritarras para compensar la menor rentabilidad por producir en zona de montaña y ayudas ligadas a la producción ecológica y a prácticas más respetuosas con el medio ambiente.

• **Ayudas forestales:** Mediante estas ayudas se pretende impulsar el sector forestal y fomentar el relevo generacional. En el 2020 se han destinado 4,8 millones de euros para consolidar el futuro de los bosques de Gipuzkoa.

2. Atender a los subsectores afectados por el Covid-19.

A lo largo del 2020 el impacto de la crisis del Covid -19 ha sido desigual en los distintos subsectores. En el 2021,

la Diputación hará un seguimiento especial de los efectos negativos ocasionados por esta pandemia para poder actuar de inmediato y ofrecer planes de apoyo eficaces.

3. Actuar eficazmente contra la enfermedad de la Lengua Azul

En el último trimestre del 2020 han surgido brotes de lengua azul en Navarra y en Gipuzkoa lo cual ha provocado la necesidad de poner en marcha un protocolo de control y vacunación que habrá de mantener en los próximos años.

La Diputación, al igual que lo ha hecho en el 2020, seguirá asumiendo todos los gastos, tanto de controles sanitarios como de vacunación.

4. Poner en marcha el programa de control de la enfermedad IBR en toda Gipuzkoa.

La Diputación ha hecho una gran apuesta por la erradicación de la enfermedad IBR. Durante el 2020 se dieron los primeros pasos aplicando el Programa en los montes comunales. En el 2021 se extenderá el programa a todo el territorio histórico de Gipuzkoa.

5. Actualizar la normativa de los Espacios Naturales Protegidos de Gipuzkoa.

Se presenta el reto de unificar los objetivos y criterios de aquellos espacios naturales que son parques naturales y que han sido declarados recientemente como parte de la Red Natura 2000.

6. Constitución de la empresa BASOTIK, entidad de gestión forestal agrupada.

Se trataría de crear una entidad de naturaleza público-privada que, mediante la agrupación de masa forestal tiene como objetivo central garantizar una gestión adecuada y rentable de la masa forestal de Gipuzkoa, así como contribuir al desarrollo integral del Territorio y a la gestión ecológica del mismo.



7. Kimuberritu. Plan de incorporación de jóvenes en la actividad forestal.

De la misma manera que el programa Gaztenek fomenta el relevo generacional y la incorporación de nuevos jóvenes en el sector agroganadero, el programa Kimuberritu persigue la misma finalidad en el sector forestal. Por tanto, la profesionalización del sector forestal y el relevo generacional son los dos objetivos principales de esta iniciativa.

8 Recuperar el Programa de Caminos rurales.

A pesar de la suspensión del programa por el Covid-19 en 2020, se recuperará la convocatoria de subvenciones a ayuntamientos y entidades locales menores. Se prevé la reparación de unos 100 kilómetros de caminos rurales a los que la Diputación Foral de Gipuzkoa destinará 1.500.000 €.

9. Recuperar la convocatoria de ayudas para el Desarrollo rural.

Estas subvenciones tienen como objetivo contribuir al desarrollo integral y al impulso de la economía de las áreas rurales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, mejorando el rendimiento económico y medioambiental de las explotaciones agrarias, mejorando la comercialización y transformación de la producción agroalimentaria y dotando a las entidades solicitantes de infraestructuras y medios para el desarrollo de proyectos en las zonas rurales de Gipuzkoa.

10. Culminar el despliegue de la Banda Ancha Ultrarrápida.

La Diputación continuará con el despliegue de la conexión ultrarrápida en los municipios de menos de 2.500 habitantes e iniciará el despliegue en el resto de las zonas rurales de Gipuzkoa a través de una colaboración técnico-económica con los ayuntamientos de más de 2.500 habitantes.

11. Diseñar, junto con los agentes sectoriales y el resto de las instituciones, el Plan Estratégico 21-27 (PAC), herramienta de financiación europea.

El año 2021 va a ser clave en el diseño de dicho Plan que a causa de la pandemia está sufriendo un retraso en su diseño e implementación. No debemos olvidar que las políticas sectoriales y las de desarrollo rural están sujetas a la normativa comunitaria a la vez que Europa supone una fuente de financiación de las acciones enmarcadas en el nuevo Plan Estratégico.

12. Recuperar el Congreso Gure Lurra, anulado en el 2020 por el Covid-19.

Este congreso es un punto de encuentro entre el mundo rural y el mundo urbano. Una iniciativa diseñada y puesta en marcha a raíz de un proceso participativo entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y los diferentes agentes del sector primario. En las jornadas celebradas los años 2018 y 2019 participaron en el evento más de 500 personas, experiencia que se quiere repetir en el 2021.

13. Elaborar un Catálogo de Servicios de la Diputación para los municipios rurales.

Es imprescindible para los cargos electos de los municipios rurales, así como para el personal de los ayuntamientos, conocer los servicios y las diferentes convocatorias de ayuda que se prestan desde la Diputación Foral de Gipuzkoa. Aglutinarlos en un Catálogo y mantenerlo actualizado, les será una herramienta útil tanto para solventar los diferentes retos que les puedan surgir en el día a día, como para mejorar la eficacia y eficiencia de sus presupuestos, ordenanzas...

14. Reforzar las dinámicas participativas sectoriales y crear un foro de municipios rurales.

En la legislatura 2015-2019 se puso en marcha una dinámica participativa con los agentes del sector. Es necesario continuar con estas dinámicas mejorándolas con la participación de, además de los agentes del primer sector, representantes del mundo científico, mundo académico y otros agentes de la sociedad guipuzcoana.

A su vez, se prevé ampliar las dinámicas participativas a las entidades rurales creando un foro de municipios rurales.

Objetivos del plan estratégico 2020-2023

OBJETIVO 10.

Alcanzar un nivel de servicios integrales y bienestar social en el medio rural similar al del medio urbano, que además de favorecer el mantenimiento de la población haga atractivas y competitivas esas zonas.



OBJETIVO 11.

Fomentar y poner en valor la actividad del primer sector en el medio rural como generador de bioeconomía y servicios ecosistémicos (alimentos locales, recreo y paisaje, identidad cultural, etc.) para Gipuzkoa.



24,4
milioi euro

Nekazaritza eta Lurralde Oreka Zuzendaritzak 2021. urtean **24,4 milioi euroko** aurrekontua izango du, bere lau zerbitzuetan honela banatuta:

NEKAZARITZA ETA LURRALDE OREKA ZUZENDARITZAREN 2021KO AURREKONTUA				
		2021 KO AURREKONTUTIK	HURRENGO URTEETAKO KREDITU KONPROMISOAK	Portzentaje
1	LANGILERIA GASTUAK	4.886.693		20%
2	ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK	3.941.153		16%
	Albaitari zerbitzuak: Osasun kanpaina, animalien identifikazioa, analisiak, ...	1.768.849		
	Nekazal Politika Bateratuaren (PAC) kontrolak eta kudeaketa	162.000		
	Elika katearen kontrolak	41.376		
	Hildako animalien bilketa, garraioa eta eraldaketa	500.000		
	Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A, laguntza teknikoa	640.000		
	Azterlanak	215.000		
	Gizarteratzea, dinamizazioa	212.800		
	Besteak	401.128		
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	8.934.619	591.000	37%
	Nekazaritza Ekologikoa	355.000		
	Mendiko Kalteordain Osagarriak (ICM)	3.000.000		
	Nekazaritza eta Ingurumeneko Neurriak (Agroanbientalak)	1.100.000		
	Ustialeku txikiak	30.000	15.000	
	Gazte Plana	750.000	375.000	
	Gestio zentruak: Lurgintza, Abelur, Enaro, Ehnelur	284.000	56.000	
	Ordezkapen zerbitzua	107.500	45.000	
	Nekazaritzako Aseguru Polizak	130.000		
	Landaola Federazioa	457.200	100.000	
	Sektoreko hitzarmenak	1.566.757		
	Besteak	1.154.162		
6	INBERTSIO ERREALAK	219.169		1%
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	6.461.422	8.675.000	26%
	Ustialekuen modernizaziorako dirulaguntzak	0	3.500.000	
	Ustialekuen modernizaziorako dirulaguntzak (aurreko urteetako proiektuak)	3.939.976		
	Abeltzantzako ustialekuetan simaurrak eta mindak maneiatzeko dirulaguntzak	100.000	50.000	
	Sagardotarako sagarrondoak landatzeko dirulaguntzak	75.000	275.000	
	Landagipuzkoa. Landa bideak egiteko dirulaguntzak	1.200.000	300.000	
	Landagipuzkoa. Landa Garapenerako dirulaguntzak	800.000	150.000	
	Landagipuzkoa. Banda Ultraazkarra	1.000.000	4.400.000	
		24.443.056	9.266.000	100%

14,2
milioi euro

Mendiak eta Natur Ingurunea Zuzendaritzak 2021. urtean **14,2 milioi euro**koa izango da eta bere bi zerbitzuetan honela banatzen da:

MENDIAK ETA NATUR INGURUNEA ZUZENDARITZAREN 2021ko AURREKONTUA				
		2021 KO AURREKONTUTIK	HURRENGO URTEETAKO KREDITU KONPROMISOAK	Portzentaje
1	LANGILERIA GASTUAK	5.472.548	0	38%
2	ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK	1.964.437	0	14%
	Erreten taldeak (Suteen zainketak)	185.000		
	Pinu beldarraren tratamendua	127.381		
	Kooperazio proiektuak eta azterlanak	396.177		
	Basanimaliak errekuaratzeko zentroa	100.000		
	Iturrrango arboretoaren mantenimendua	84.700		
	Arrain eta ehiza birpopulaketa eta kudeaketa	140.684		
	Mendiak hobetzeko ekimen desberdinak	190.000		
	Gizarteratzea, dinamizazioa	108.000		
	Baso lerketa aplikatua	55.000		
	Besteak	632.495		
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.185.713	1.138.666	15%
	Sektoreko hitzarmenak: Baso Elkartea, Mendi Federazioa, Ehiza Federazioa, Arrantza Federazioa, Aranzadi, Geogarapen, Zumaia Udala ...	378.490	38.666	
	Gipuzkoako Parketxe Sarea	395.500		
	BASOTIK- Baso Kudeaketarak enpresa	1.000.000	1.000.000	
	Etorlur Gipuzkoako Lurra S.A, laguntza teknikoa	105.000		
	KIMUBERRITU	100.000	100.000	
	Besteak	206.723		
6	INBERTSIO ERREALAK	1.884.713	0	13%
	GFaren jabetzako mendietan hobekuntzak	175.000		
	Udalen mendietan hobekuntzak: larreen hobekuntza (GOILARRE), basolanak, bideak, mugarriztatzea, Parkeetara paseoak,...	1.425.902		
	Besteak: Basanimali eta landare kontserbazioa, ibilgailuak, makineria,...	283.811		
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	2.766.365	1.537.945	19%
	Partikularren basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko dirulaguntzak (2021 eko deialdia)	1.541.055	1.537.945	
	Partikularren basoak zaindu, hobetu eta ugaritzeko dirulaguntzak (aurreko urteetako proiektuak)	925.310		
	Landalurren digitalizazioa	300.000		
		14.273.776	2.676.611	100%



**Baso sektorea
indartzea eta
etorkizuna bermatzea
gure lehentasuna da**

4,8 milioi eurotik gora bideratu ditugu aurten Gipuzkoako basoak indartzeko

**Laguntza horien bidez basogintza sektorea indartu eta
belaunaldien arteko erreleboa bultzatu nahi da**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako basoak mantendu, hobetu eta garatzeko 2020rako dirulaguntzak ebatzi ditu. Dirulaguntza hauek baso-jabe partikularrek beraien basoetan egiten dituzten lanak laguntzeko dira. Hasiera batean, 2020ko deialdirako aurreikusitako aurrekontua 3,6 milioi eurokoa zen, baina jasotako eskaeren bolumena kontuan hartuta, partida 1,1 milioi euroekin handitu da, guztira, 4,8 milioi eurora iritsiz – iaz baino % 18,44 gehiago-, eta lurraldeko basogintza sektorea indartzeko erabiliko dira. Aurten, 2.122 espediente onartu dira.

Ekonomia Sustapena, Turismoa eta Landa Ingurunekeo Departamentuak egindako deialdiak arreta berezia jarri die aurtengoan honako gai hauei: baso-sektorea sustatzea, basoen osasun-egoera hobetzea, sektorea gaztetzea, lursailak bertan behera ez uztea, kudeatutako basoak eskaintzea eta baso-ustategien gutxieneko tamaina handitzea.

**“ Basoek onura ugari dakarzkioite
Gipuzkoako gizarteari, lehengai
berriztagarriak ematen baitituzte,
ingurumen-ongizatearen iturri baitira
eta Covid-19aren garaian bereziki
baloratutako gizarte eta aisialdi
funtzioa betetzen baitute. Hori dela
eta, baso-jabeek egiten dituzten
inbertsioak babesten ditugu, haien
bitartez basoen funtzio ekonomiko,
ekologiko eta sozialak mantentzen
eta garatzen lagunduz ”**

Arantxa Ariztimuño,
Mendietako eta Natura Ingurunekeo zuzendaria

Basoberritze lanak

2020ko deialdiko dirulaguntzen bidez, baso-jabeek 1.383 ha basoberritu ahal izan dituzte, 284 ha ongarritu, 46.388 metroan zehar itxiturak egin, 4372 ha-tan sastrakak garbitu, 165 ha inausi eta 234 ha bakandu. Era berean, 598 ha-tan gaixotutako pinudietan egindako mozketak, 44.919 metrotan bideak hobetzeko egindako lanak eta 22 ha-tan egindako lursail eskualdatzeak ere finantzatu dira laguntza hauen bitartez.

Basoberritzeko laguntzei dagokienez, baso-jabeek espezie anitzez osatutako lanak burutu dituzte: itsas pinua, kriptomeria, sekuaia, lizarra, (50 urteko txandekin) eta bertako haritza eta pagoa, 90 urtetik gorako bizi-zikloekin, esaterako.

BASOTIK kudeaketa enpresa

Baso sektorea berrindartzea administrazioa, gizartea eta baso-jabeen arteko elkarlanaren emaitza izango da. Hori dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak basogintzaren kudeaketarako ekimen berriak sortu ditu. Ekimen berri hauen bitartez, basogintza nekazal jarduerari uztartzea, sektorea gaztetzea eta basoen abandonua ekiditea lortu nahi da.

Basotik kudeaketa enpresa horietako bat da, eta basoak errekuaratu eta modu jasangarri batean kudeatzeko baso jabez osatutako enpresa bat sortzean datza. Baso jabe den edonork parte hartu ahal izango du enpresan bere basoen balioa enpresako kapitaleko partizipazio bihurtuz. Baso jabe berak baita ere parte hartu ahal izango du kapitalean ekarpena dirutan eginez. Eta baso jabeek gain, nahi duen edozein herritarrek ere parte hartu ahal izango du akzioak erosiz. Guzti honekin, basoaren kudeaketa efizienteago bat egitea lortuko litzateke.

Dirulaguntza deialdi honen bidez bideratutako zenbateko ekonomikoa handituz joan da, duela sei urtekoa lauokiztu arte. Basoa berritzeko baliabide asko inbertitzen ari da Aldundia, hori ere Gipuzkoaren etorkizuna bermatzea baita. Basoak gure ingurumenaren bizkarrezurra dira, eta ezinbestekoak izango dira klima-aldaketa saihesteko eta baliabide berriztagarrietan oinarritutako eredu ekonomiko jasangarriagoetara igarotzeko, bioekonomiaren alde eginez.



KIMUBERRITU plana

Urrian Gazte Planean parte hartutako gazteekin eginiko ekitaldian aurkeztu zen Kimuberritu Plana, eta, helburua, baso sektorean erreleboa sustatu eta profesionalizatzea da. Horren harira, GAZTENEK programan nekazal jarduera bat bultzatzeko asmoz izen-ematen duten gazteei, basogintza jarduera osagarri bezala lantzeagatik laguntza gehigarriak emango zaizkie.

Bestalde, GAZTENEK programaz baliatzen ez direnei (adinarengatik ezin dutelako, beste jarduera bat dutelako, nekazaritza proiekturik ez dutelako...) ere aukera eman nahi zaie beraien baso proiektua garatzeko. Ibilbide honen tresnak honako hauek izango dira: formakuntza, basoak erosteko dirulaguntzak eta monitorizazio-tutorizazioa. Programa honetan onartuak izango diren hautagaiek GAZTENEK programan bezala beka baten aukera izango dute.



“ Hemos diseñado el plan piloto siguiendo criterios de máxima seguridad y de respeto al entorno”

Ander Arias,
Jefe del departamento de ciencias forestales de Neiker

¿En qué consiste el plan Plan Piloto Experimental 2019-2021 y en qué fase se encuentra?

Es un plan que comenzó el año pasado con el que buscamos soluciones innovadoras y sostenibles para erradicar la enfermedad de la banda marrón. Respecto a sus líneas de actuación, incluye la selección de genotipos o árboles resistentes a las bandas, el estudio para la posible introducción de especies de interés comercial y resistentes en las condiciones locales, la evaluación de sustancias eficaces y ensayos terrestres y aéreos para testar las sustancias que *in vitro*, en invernadero y en otros ensayos han mostrado su

Cuidar la sanidad forestal es uno de los factores clave de la Dirección General de Montes y Medio Natural de la Diputación. Por ello, la Diputación Foral De Gipuzkoa junto con el Gobierno Vasco y las diputaciones forales de Bizkaia y Álava están haciendo un seguimiento continuo de la enfermedad de las bandas del pino. Dentro de este seguimiento, la institución de investigaciones agrarias, Neiker, puso en marcha un Plan Piloto Experimental 2019-2021 para combatir la banda marrón.

eficacia. Además de haber ideado el plan, desde NEIKER coordinamos y ejecutamos sus actuaciones en colaboración con las tres Diputaciones Forales, con la UPV/EHU, HAZI, BaskEgur, URA, el Instituto Nacional de Investigación y Tecnología Agraria y Alimentaria (INIA) y el Instituto Catalán de Investigación del Agua (ICRA).

¿Cuáles han sido los resultados de la primera fase del plan?

En la primera fase del plan, que ha tenido lugar en 2019, buscamos árboles resistentes a las bandas, para lo cual multiplicamos piñas inmaduras de pinos que parecían mostrar resistencia en el monte frente a la enfermedad. También se realizaron mapas del suelo de Euskadi para saber si una zona es adecuada para especies forestales que permitirían diversificar las masas locales. Asimismo, testamos más de 70 materias activas y productos fitosanitarios para evaluar los más efectivos en campo. Respecto a las acciones en el monte, en 2019 efectuamos pruebas vía terrestre en los 3 Territorios Históricos con los productos que mostraron mejor funcionamiento *in vitro* o en otros ensayos o especies, y también en monte pero vía aérea, con óxido cuproso y bioestimulantes, lo que nos permitió comprobar que el tratamiento es adecuado y efectivo, la deriva

es baja y que no hay evidencia de alteraciones en el medio ambiente.

¿Y cómo van las acciones previstas para la segunda fase del plan, en 2020?

Tras multiplicar piñas inmaduras de pinos aparentemente resistentes a la enfermedad, en esta segunda fase trabajamos para evaluar si efectivamente lo son. Si muestran una tolerancia clara, serán introducidos en el programa de mejora genética forestal en los próximos años. Seguimos estudiando las características del suelo para realizar mapas que ayuden a decidir qué especies son las más adecuadas en localizaciones concretas y en un clima cambiante. Respecto a los ensayos de campo terrestres, estamos evaluando las 5 sustancias activas más prometedoras. Y vía aérea, estamos estudiando el efecto de fertilizantes y bioestimulantes solubles. En octubre hemos realizado una aplicación aérea mediante helicóptero. Para ello las Diputaciones Forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa han elegido y gestionado las autorizaciones necesarias para realizar el tratamiento. Los productos aplicados no son fitosanitarios sino sustancias naturales con nutrientes y bioestimulantes que activan la defensa de los árboles. Y en el caso de Gipuzkoa los tratamientos se han realizado en Zegama, Antzuola, Idiazabal, Ataun, Berastegi, Elduain y Mutiloa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak baso osasunaren alde lanean jarraituko du.

Buscando pinos resistentes a las bandas marrón y roja.

Con el aval de su amplia trayectoria en el ámbito forestal, NEIKER ha ideado el Plan Piloto Experimental 2019-2021 que comenzó el año pasado para buscar soluciones innovadoras y sostenibles para erradicar las bandas marrón y roja; una iniciativa coordinada por la Diputación Foral de Gipuzkoa, el Gobierno Vasco y las diputaciones forales de Bizkaia y Álava. Uno de los ejes del plan es la identificación de árboles que pudieran ser tolerantes a la banda marrón.

La estrategia para identificar árboles que pudieran ser tolerantes comienza en 2018. Se localizaron masas afectadas por las bandas donde había árboles aparentemente sanos respecto a otros que les rodeaban. El siguiente paso fue la evaluación de características básicas como altura y diámetro del árbol ya que, además de tolerancia a la enfermedad, es deseable que los árboles posean otras características de interés forestal.

En una segunda fase, se recolectaron conos verdes (piña inmadura) para la multiplicación de los candidatos desde la línea de cultivo *in vitro* de NEIKER y se generaron distintas líneas celulares de las semillas inmaduras mediante una técnica denominada embriogénesis somática, en la que NEIKER es referente. Cada una de estas líneas celulares dará lugar a un número elevado de plantas genéticamente idénticas entre sí que, tras un año desde la recogida, estarán listas para ser aclimatadas en el invernadero. Si se confirma que las plantas procedentes

de una determinada línea celular muestran resultados positivos, podrían multiplicarse para testar si afrontan de manera adecuada el ataque del hongo.

Se solicita la colaboración de los propietarios forestales y baserritarras.

Actualmente, se ha comenzado a testar planta procedente de los pinos muestreados en 2018 y se sigue con la selección de candidatos anualmente. En este sentido, es fundamental la participación de propietarios y propietarias, trabajadores y trabajadoras forestales y ciudadanía en general que pueda aportar información sobre localizaciones interesantes donde poder hallar pinos candidatos.

Estas labores no solo aportan soluciones al actual problema sanitario de las bandas, sino que los posibles pinos que toleran estos ataques formarán parte de una variada lista de pinos seleccionados para otros caracteres de interés forestal. Los pinos necesitan resistir plagas, pero también producir madera de calidad sin olvidarnos de mantener una diversidad adecuada para la especie. Una lista extensa de pinos certificados es esencial y flexible para abordar futuros eventos bióticos sin olvidarnos del contexto de cambio climático en el que vivimos. En definitiva, una buena selección de árboles no solo es útil para futuras demandas del sector, sino que tiene una añadida capacidad de resiliencia.

Sin embargo, hemos de ser conscientes de que nos encontramos ante un fenómeno global. El impacto de la enfermedad se produce a escala regional (Euskadi, Navarra, Asturias, Cantabria, etc.), europea y mundial. Se trata de un problema con una solución de un nivel de dificultad extremadamente alto para el desarrollo de estrategias de control y manejo del género *Pinus*, en el que NEIKER trabaja a nivel de programas de mejora, técnicas de multiplicación innovadoras y búsqueda de estrategias de prevención y control.

Neiker



Aviso de pinos resistentes:

En el caso de que en un terreno infectado localicéis un pino sano, notificadlo al Laboratorio Agroambiental Fraisoro de la Diputación Foral de Gipuzkoa:

Teléfono: 943113636

Email: laboratorio@gipuzkoa.eus



GIPUZKOAKO BASO ELKARTEA



GEBEk modu positiboan baloratzen ditu Aldundiak bultzatutako Pagoeta Taldea delakoaren bilerak. Bilera horietan, baso-jarduera garatzeko azpiegituren esparruan zenbait ekintza nabarmendu eta martxan jarri ziren, baina beharrezko ikusten da berauok burutzea:

- Landa-bideen eraikuntza-ezaugarriak zehaztea, landa-jardueratik eratorritako erabilera guztiak (basogintza barne) onar ditzaten. Hori eginda, bide horien erabilera arautuko duen ordenantza eredu bat onartzea (zirriborro bat badago).
- Eragileak inplikatu eta egur aprobetxamenduen irudia duindu eta hobetuko dituen egur parkeen sare bat finkatu eta arautzea. Errepide eta Mendi Zuzendaritzak ari dira Sektorearekin batera lanean.
- Landa-jabetza sendotzea, Landa-jabetzaren estatutu bat onartuz, (GEBEk zirriborro bat egin zuen) eta zenbait udaletan dagoeneko jorratu den (Ezkio-ltsaso, ltsasondo, Arama, Mutiloa, Zerain, Legazpi eta Zegama) Landa-jabetzaren mugarriketa Gipuzkoa osora hedatzea.

GEBEko zuzendari teknikoa
Jone Maioz



Como consecuencia de la pandemia forestal, en los últimos años, se tala el doble de superficie que se repuebla. El mantenimiento de la superficie forestal transcende a lo que es una actividad que se desarrolla en el medio rural.

Con la iniciativa Basotik, la Diputación lo ha entendido así al abrir la participación al conjunto de la sociedad. Propietarios y propietarias con terrenos e inversores con dinero. Se trata de socializar la actividad forestal y por tanto la conservación del Patrimonio Natural y la producción de madera.

Para el éxito de la operación, desde GEBE, vemos necesario que la Diputación ayude, más que nunca, a los activos forestales que continúan con su labor. A éstos y a los que se incorporan, el conjunto de la sociedad de Gipuzkoa, a través de sus instituciones, debe garantizar una rentabilidad mínima mediante el pago de los servicios ecosistémicos generados y con la promoción y valoración del uso de la madera.

El Presidente de GEBE
Juan Carlos Berraondo

“ETXEKOAK” kanpaina

Bertako produktuen kontsumoa sustatzeko sentsibilizazio kanpaina

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu irekien programaren barruan herritarren 2020ko proiektu aukeratuenetako bat bertako produktuen kontsumoa sustatzearena izan zen. Gipuzkoako 13.087 herritarrek hartu zuten parte bozketan eta 12 proiektu proposamenen artean gustukoena aukeratu zituzten.

Herritarren nahiari erantzunez, Aldundiak, gabon hauetan bertako produktuen kontsumoa sustatzeko 'Etxekoak' kanpaina jarri du martxan. Kanpainak 100.000 euroko aurrekontua izan du, eta prentsaz gain, irrati zein tokiko telebistetan ere izan du oihartzuna.

Etxekoak

Bertakoak, kalitatezkoak, gureak.

Orain, inoiz baino gehiago, erosi ditzagun gure baserritarren produktuak.

Erosi geurea,
erosi Gipuzkoa



Adur Gorostidi
Zubeldi Erdi baserria, Abaltzisketa



Vanesa Barriuso
Basitegi baserria, Urnieta



Inaxio Ameztol
Ameztol upategia, Getaria



Maite Otaño
Gurutzeta baserria, Urnieta

Digitalización de suelo rural

La Diputación georeferenciará los límites de terrenos rurales de Gipuzkoa mediante GPS en los próximos diez años

El 90% de los terrenos de Gipuzkoa es suelo rural e históricamente estos terrenos han estado ligados al caserío; sin embargo, en las últimas décadas, la sociedad guipuzcoana se ha vuelto más urbana, y esto ha supuesto la pérdida de conocimiento sobre las fincas y sobre sus mojones.

Conscientes de esta situación y con el objetivo de traspasar una información clara a las generaciones posteriores, la Dirección de Montes y Medio Natural de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha puesto en marcha una iniciativa para recoger digitalmente los límites de las parcelas de todo el suelo rural de Gipuzkoa. Mediante este proyecto se pretende que en el periodo 2020-2030 las localizaciones de los terrenos rurales de Gipuzkoa estén georeferenciadas mediante GPS.

Datos

- La inversión de la Diputación será de 3 millones de euros (300.000 euros al año).
- Cada municipio deberá aportar el otro 50%.
- El proyecto no supondrá ningún coste para el propietario del terreno.

El proceso de digitalización de los terrenos rurales de Gipuzkoa será complejo, ya que se visitarán los terrenos uno a uno para poder marcar los límites, recoger las coordenadas y colocar los mojones; por ello, la Diputación, ha pedido la colaboración de los ayuntamientos, y sobre todo de los propietarios. El proceso constará de las siguientes fases:

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa convocará anualmente subvenciones dirigidas a los ayuntamientos.

2. Se recogerá la información catastral para identificar los datos y propiedades de los terrenos de cada localidad.
3. Se pondrá en marcha un grupo de trabajo formado por la empresa encargada en realizar los trabajos, el ayuntamiento y la Diputación; así como una pequeña oficina de atención al propietario en el ayuntamiento.
4. Los propietarios de los terrenos determinarán los límites definitivos con los terrenos colindantes. En caso de desacuerdo se realizará una mediación y si no se llega a un acuerdo la información correspondiente a estos mojones quedará sin actualizar.
5. Se acudirá al monte y se recogerán los puntos exactos de las localizaciones mediante GPS.
6. Se trasladarán las localizaciones al programa GIS.

Resultado

Se trata de un ambicioso proyecto que busca el beneficio tanto de los propietarios y propietarias de terrenos como de las instituciones públicas.

La digitalización de los terrenos rurales permitirá disponer de una base de

datos actualizada que facilitará la gestión del medio rural guipuzcoano.

- A cada propietario de terreno se le entregará el plano topográfico y la ortofoto de sus terrenos, tanto en papel como en digital.

- Los límites definitivos de los terrenos rurales se recogerán en formato digital en el Catastro.

- Se facilitará al Ayuntamiento la información completa del municipio clasificada en los polígonos del Catastro, en formato digital y también impresa en ortofoto a escala 1/5000.

Legazpi ya ha georeferenciado las localizaciones de 2.902 hectáreas y el resto lo hará mediante el programa de digitalización de la Diputación

El Ayuntamiento de Legazpi, junto a Ezkio, Itxaso, Mutiloa, Zerain, Urretxu y Zegama ha sido uno de los pioneros en

digitalizar las localizaciones de las tierras rurales. En Legazpi, empezaron con el proceso en el 2014 y en cuatro años llegaron a digitalizar 2.902 hectáreas. Les quedan 1.111 hectáreas por digitalizar, y esta última fase la llevarán a cabo en colaboración con la Diputación, mediante el programa de digitalización de la institución foral que acabamos de mencionar. Desde el Ayuntamiento valoran positivamente la iniciativa de la Diputación y animan a más pueblos a llevar a cabo la digitalización, ya que aseguran que los y las propietarias de los terrenos han quedado muy satisfechos con el resultado.



RUFINO TELLERIA (LURSAIL JABEA)

"Baserri txiki bat dugu Legazpin eta lursailak herentzian jasoak dira. Gure aitek primeran ezagutzen zituen muga guztiak, nik gehiagoak bai, baina justuan, eta semeak aldiz ez luke jakingo bilatzen. Beraz, sekulako aurrerapena izan da muga guztiak GPS bidez markatzea. Egin beharreko bakarra teknikariak ebaluazioa egitera eta mugak ebaluazioa egitera eta mugak markatzera etortzen direnerako terrenoak garbituta izatea izan da. Eta, ondoren, liburuxka batean terrenoen muga guztiak zehatz eta argi jaso ditugu. Orokorrean lursail kideak oso pozik geratu gara emaitzarekin. Gipuzkoa guztian landa lurak digitalizatzea aurrerapausoa da nire ustez, ondoren etor daitezken endredoak ekiditen baitira".




BELEN MADINABEITIA (LURSAIL JABEA)

"Gure kasuan Legazpiko baserri batean bizi gara eta lursailak ere baditugu. Lursailak ezagutzen ditugu, bertan lan egiten baitugu, baina mugaren batekin zalantza egin dugu, eta, beraz, oso ondo etorri zaigu Legazpin landa lurak digitalizatu izana. Jabe bezala animatzen ditut egitasmo honetan parte hartzera, hasieran pixka bat ibili behar zara muga guztiak bisitatu eta zehazteko, baina gerora begira lasaitua da, badakizulako argi zehaztuta geratuko direla, batez ere ondorengoei begira".




M03-99
X COORD:
555.100,72
Y COORD:
4.760.506,35



Gipuzkoa abere osasun gaietan aitzindari

“Aldundiak abereen osasunaren aldeko kanpainak lehenetsi ditu 2021eko aurrekontuetan, gaixotasunen aurkako ikerketekin, osasun-kontrolekin eta txertaketa kanpainekin jarraitu ahal izateko”

Xabier Arruti,
Nekazaritzako eta Lurralde Orekako zuzendaria



Mingain urdinaren aurkako protokoloa dela eta 115.000 ardi eta 50.000 abelgorri txertatu dira Gipuzkoan

Txertaketa kanpainak 500.000 euroko kostua izan du eta Aldundiak bere gain hartu du

Gipuzkoako Aia herriko ustiapen batean mingain urdin gaitzaren bi abelburu positibo diagnostikatu ziren eta ondorioz Espainiako Nekazaritza ministerioak Gipuzkoan osasun protokoloa aktibatu zuen. Protokoloak animaliak lekualdatzea debekatu zuen eta baita derrigorrezko txertaketa kanpaina martxan jarri ere, Nafarroan Elizondan diagnostikatutako kasuaren ostean egin zen moduan.

Gipuzkoaren kasuan lurralde osoari eragin diote neurri hauek, eta 115.000 ardi eta 50.000 abelgorri txertatu dira. Txertaketa kanpainaren kostua 500.000 eurokoa izan da eta Aldundiak bere gain hartu du guztia, ondorioz, ganaduzaleentzat erabat doakoa izan da zerbitzua. Horrez gain gain, Aldundia ahalik eta azkarren aritu da txertaketa guztiak egiten, animalien garraiorako debekua kendu eta normaltasuna berreskuratu ahal izateko.


MINGAIN URDINA GAIXOTASUNAREN EZAUGARRIAK

Mingain urdina edo Ardien Katarro Sukarra kutsakorra den gaixotasun birikoa da. Animalia hausnarkari domestikoei zein basatiei eragiten diena, batez ere ardiei. Intsektuen bidez transmititzen da, nagusiki eltxo-espezie jakin batzuen ziztadaren bidez, Culicoides generoko eltxoak hain zuzen. Eltxoak animalia kutsatuak ziztatu eta horien odola hartzean kutsatzen dira. Gaixotasunak ez du inolako eraginik gizakiengan: ez animaliarekin kontaktuan egonez gero, eta ezta animaliaaren haragia kontsumituz gero ere

Mingain urdina gaitzaren 29 serotipo ezberdin identifikatu dira eta European horietatik sei (1,2,4,8,9 eta 16) eta Espainian lau (1,2,4,8) atzeman izan dira; sintomen larritasuna serotipoaren arabera izan ohi da. Euskadiren kasuan 8 serotipoa diagnostikatu da, Frantziatik datorrena. Sintomen artean daude sukarra, hemorragiak eta ultzerazioa aho- eta sudur-ehunean, gehiegizko listu-jariatzea, beherako ugaria, gorakoa, pneumonia edota ahultasuna.

Euskadin atzeman zen azken fokoa 2009an izan zen eta Espainiar estatuan, aldiz, 2010eko azaroan, Cadizen. Ondorioz, hiru urtera, 2013an, gaitzetik ofizialki libre dagoen estatu moduan izendatu zen. Uztailearen 20tik, eta, batez ere, irailean zehar, 8 serotipodun 43 foku diagnostikatu dira Frantzian; beraz, itxura guztien arabera bertatik etorritako eltxo bat izan daiteke arrazoa.

Gaur egun, txertaketa da neurririk eraginkorrena eta praktikoena gaixotasunari lotutako galerak minimora murrizteko eta infektatutako animaliaaren zikloa eteteko.



IBR programa
Gipuzkoa osora
zabalduko du
Aldundiak

2021eko kanpainan IBR3tik beherako kalifikazioa duten ustiategi guztietako abereak txertatuko dira

Behien Infekzio-Errinotrakeitisa (IBR) gaitzaren aurrean, estatu mailan aitzindari den programa bat jarri zuen martxan Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune

Departamentuak. Programa honi esker, maiatzaren 1ean larreak irekitzen ziren unetik aurrera, mendira zihuan abelburu bakoitza IBR gaitzaren aurkako txertoa hartuta eta beharrezko kontrol guztiak pasata igo zen. Sektoreko eragileek eskatutako neurria izan zen hau eta Aldundiak ekimena hartzea erabaki zuen. Izan ere, txertatzeari esker, gaitzik ez duten animaliek gaitza hartzea ekiditen da eta baita gaitza duten animalien kutsagarritasuna murriztea ere.

Bide berean, eta beti ere sektoreko eragileen iritziak entzun ondoren, Aldundiak haratago joatea erabaki du, IBR programa Gipuzkoa osora zabaltzeko erabakia hartuaz. Ondorioz, 2021eko kanpainan IBR3tik beherako kalifikazioa duten ustiategi guztietako abereak txertatuko dira, baita iazko udaberrian txertatu ziren abereak ere, IBRarena urteroko kanpaina bat baita.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundia une honetan menditik jaisten ari diren animaliei frogak egiten ari zaie, mendian egin dituzten hilabeteetan birusaren zirkulaziorik ez dela egon egiaztatzeko.



IBR GAIXOTASUNAREN EZAUGARRIAK

IBR gaitza herpes motako birus batek eragindako gaixotasuna da eta abelgorriei erasotzen die; gaixotasuna pasa duten abereak ez dira inoiz sendatzen eta bizitza osoan zehar beste animaliak kutsatzeko gaitasuna dute. Gaixotasun honek, ugalketa aparatua, arnas aparatua eta nerbio sistemak erasotzen ditu eta ondorioz, ume galtzeak, ugalkortasun jaitsierak, arnas bide arazoak eta entzefalitisa sufritzen dituzte, besteak beste. Hori dela eta, gaitzak kalte ekonomiko handiak sortzen dizkie abeltzainei.

IBR gaitza ibilbide luzea duen gaixotasuna da eta Europako herrialde batzuk, duela urte batzuk jarritako osasun programei esker gaixotasuna erradikatzea lortu dute; ondorioz, gaur egun gaitzetik libre dauden herrialde moduan izendatuta daude. Espainiaren kasuan, 554/2019 Errege Dekretuak abelgorrietan IBR gaitzaren aurkako programa martxan

jartzeko irizpideak finkatu zituen eta borondatezko programa bat eskaini zien ustialekuei. Gipuzkoako Foru Aldundiak, ordea, gaitzaren aurkako osasun programa ofizial bat jarri du martxan eta abelgorri guztiak txertatuta izatea beharrezko neurri moduan hartu da, estatu mailan aitzindari bihurtuaz. Neurri honi esker, Gipuzkoako abeltzainen ustialekuek osasun bermea duen kalifikazioa izango dute eta horrek ganadua atzerrian saltzea erraztuko die.

Egindako kontrol eta txertaketa kopuruen arabera, ustialeku bakoitzak kalifikazio bat lortzen du eta horren arabera kategoria batean edo bestean sailkatzen dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri duen osasun programa honen helburua etorkizunean Gipuzkoa osoa IBR gaitzetik ofizialki libre dagoen herrialdea izatea da.

NEKAGIP APP

Lehen sektorearen inguruko albisteak, tramiteak eta dirulaguntzak uneoro eskura zure mugikorrean



Zerbitzuak:

Animalien identifikazio, errolda liburu eta behi aziendaren erregistroa.

Ustategietako informazio orokorra.



**ANIMA ZAITEZ
ETA DESKARGA
EZAZU ZURE
MUGIKORREAN!**



Bertako indigenak

Lizarrako ostatu batean zainzuriak eskatu genituen. "Oso onak dira, Txilekoak", esan zigun nagusiak. Joxean eta biok elkarri begira gelditu ginen. Lizarraldean bertan ekoizten dira zainzuriak, agian traktorean eramango lizkiekete jatetxera, baina guri 11.000 kilometrora ekoiztiak jarri zizkiguten platerean.

Txileko laborari bat irudikatu dut, indigena arrazakoa, makurtuta, gauez, zainzuriak ateratzen. Zangaz zanga plastiko beltzak alboratu, muturra agerian duen frantsesporruari inguruko lurra kendu, zuztarretik moztu eta saskira. Behin eta berriz gauza bera. Berdin-berdin irudika ditzaket Peruko piperzaleak, Marokoko tomatezaleak, Normandiako sagarzaleak... Gainera, distantziak distantzia, gertutasuna eta enpatia sentitzen ditut haiekiko. Barruak ez dit uzten, ordea, Ibarra, Gernika edo Ezpeletan piperren ekoizpenean diharduten baratzezainak irudikatu gabe begiak irekitzen; pentsamenduak itxuraldatzea litzateke Zarauzko tomate berdingabeak bertatik bertara saltzen dizkiguten laborariez oroitu gabe gelditzea; bidegabea litzateke gure sagastietako ale gazi, gozo eta gezak mahairatzen dizkiguten baserritarrei keinu bat egin gabe geratzea.

Artean oso umea nintzen Nafarroako ahaide batzuen etxera bisitan joan ginenean, Deierri ibarreko Lorka herrixkara. Gure amama Elbiraren lehengusu-lehengusinak bizi ziren han, Cruz eta Asun. Cruzek pikuk biltzera eraman gintuen anaia eta biok. "Son pequeños, pero mucho buenos. Ni comparación con los que vais a encontrar en las tiendas, por mucho brillo que tengan". Ez dut sekula hainbeste gozatu izan fruta jaten. Geroztik ez diet sekula muzin egin itxura kaxkarxeagoko jakiei.

Munduan zehar batere ibili den edonork daki zer nolako zortea dugun gure itsasoak eta lurak ematen digutenaz, zer nolako zoria den gure arrantzale, baserritar eta abeltzainen goimailako produktuez elikatu eta gozatu ahal izatea. Ez guke alferrik galdu behar kaitik, baratzetik edo ukuilutik zuzenean sukaldara kalitate goreneko produktuak eraman ahal izateko aukera. Herri-ikuskeragatik edo gizarte-kontzientziagatik ez bada, egin dezagun osasunagatik.

Xabier Euzkitze

“Aukera egokia da, haizea alde dago eta aprobetxatzea tokatzen da”

Jon Ander Azpiroz

Landa Udalerriren
Garapenerako
Zuzendaria



Ez dira betiko garai onenak, azken finean gizaki hutsak gara zioen, Hertzaizen kantaren hitzak. Pandemia honek hankaz gora jarri al du mundu osoa, baita mundutar asko ere. Baina galdera da: mundutar guztiak jarri al ditu hankaz gora? Herri txikietan eguneroko bizitza horrenbeste aldatu al zaigu?

Baiezkia erantzungo genieke, etxeratzea guztion betebeharra izan baitzen, eta, gaur egun ere, guztion betebeharra da neurriak ahalik eta ondoen betetzea, inork gogoratu beharrik izan gabe. Biztanle gutxiko

zenbait herritako alkatek, eskatu zuten lehenengo aldi hartan neurriak ez hiri handien antzera aplikatzea. Baina gutxiagiri entzun zitzaion aldarri hau. Bigarrenorako ezberdintasunak ikusi ditugu, baina eskaeretatik haratago, ez al da gaixotasunak herri txiki hauetan izan duen eraginagatik izan.

Datuei erreparatu, Gipuzkoan (eta beste lurraldeetan), herri txikiak izan dira kutsatutako kopurua on mantendu duten herriak. Hiruko erregela hutsa egin genezake, eta jende gutxi bizi denez, probabilitate txikiagoa dago kutsatzeko. Dena dela eragiketa sinpletatik kanpo, konturatu ahal gara herri txikietako bizitzak, egokiagoak direla honelako gaixotasun bati aurre egiteko? Hiri edo lantokietako baldintzak betetzen badira, ez dugula mugitu beharrik, eta gainera, naturatik, mendi, zela eta erreketatik gertuago egoteak gure osasuna, (fisikoa zein

mentala) askoz hobetuko izateko baldintza nagusi direla?

Norbait ohartu da, eta hainbat artikulutan ari gara entzuten jada, urbaniten erbestealdiaz. Bai, hiri moderno eta aurreratuetatik, baserri zein herri txikietara bizitzera joateko hautua egin dute hainbat eta hainbat familiak. Gero eta gehiago dira, lurralde hauetaz hitz onak dituzten herriak zein iritziak. Komunikabideetan ere, gehiago ikusten ditugu, ia ahaztuta utzi ditugun herri txikien aldeko jarrerak. Moda ote den esana du zenbaitek, baina, modaz aparteko zerbait dela iruditzen zaigu etxer, herriz aldatzearen aukera egitea.

Ohartu dira zenbait eraikuntza enpresa, eta hasi dira, herri hauetan etxebizitza sustapenen proiektuak idazten. Baserri dezente ari da eraberritzen landa eremuan, eta krisia-krisi, diru andana doa sektore honetara.

Hau detektatuta, erakundeok hor egon behar dugu, hor egotea tokatzen zaigu. Alde batetik lurraldeko hiri eremuko gutxiengo azpiegitura eta zerbitzuak eduki ditzaten. Horretan ari gara, LandaGipuzkoaren bidez, banda zabalaren hedapenarekin eta baserri-bideen mantenurako diru-laguntzekin Aldunditik. Bertako biztanleria, herrian jaioakoa, herrian geratu edo kontsolidatzea lortu beharra dago. Alabaina zenbait testuingurutan, horrekin ez da nahikoa. Beste herrietatik ere erakarri behar ditugu biztanleak, betidanik eduki ditugun errezeloak alde batera utzi, eta harrera ona egingo diegun biztanle berriak behar baitituzte gure herrixkek, guztion onerako.

Horretarako, ordea, ez da nahikoa betiko errezeloak albo batera uztea bakarrik. Herrigintzan dihardugunok, konturatu egin behar dugu, ezin dugula etxebizitzaren eskaeren zain egon eta eskaeren tramitatzailerik huts izan. Ezin dugu gazte talde edo belaunaldi baten etxebizitza beharrezko eskaera multzoaren zain egon, ez baita nahikoa izango horrekin. Eskaeraren aurretik, eskaintza eduki behar dugu. Badakigu etxebizitza eskaintza hori ez dela erraza herriaren aurrean defenditzea, hori burutzeko beste zerbaitetan gastatzeari utzi behar baitaio. Hala ere, ulertu egin behar dugu, herrira begira, herriaren etorkizunera begira egiten

den inbertsioa dela, herri horretan etxebizitzak eskaintzea. Aukera egokia da, haizea alde dago eta aprobetxatzea tokatzen da.

Ez gara etxebizitza modeloaren eztabaidan hasiko, bakoitzak ikusi beharko du zein etortzen zaion edo zein egokitzen zaion hobeto. Baina herrigintzak, erabakitzeaz gain, berekin du erabakitzeko unea edo erabakia hartzeko momentua, eta ez daukagu denborarik hausnarketa sakonetan hasteko era batekoak edo besteak egin beharko dira, aukera berdintasuna bermatuz, herriaren zein bizilagunen baliabideak kontuan hartuz. Aukera erradikal eta estremistak albo batera utzi eta bitarteko bideak hartzea izaten da horrelakoetan biderik zuzurrena. Ideologiaren gainera egon behar baitu herriak herrigintzan gabilzanontzat, eta ezin baitira geure herrietan barneratuta dauden baloreak ahantzi. Egitea

da kontua, enpresa pribatuaren zain, kapitalak agintzen duenari begira egon gabe, aukera berriak sorraziz. Aukera berriak, ordea, berritu ere esan dezake, gure esaera zaharrak dioten moduan: *Etxe beteak atsegin, etxe hutsak bihotz min!*

Tren hau ez da pixka batean berriz igaroko, eta komeni da parean pasatzen denean barrura sartzea. Hartu izanaren damua hobe baita hartu ez izanarena edukitzea baino. Kinka larrian ditugu hainbat herri, eta bista altxatuz etorkizunari begiratzea tokatzen da, bestela herri izateari utziko zaio. Eta herri batek, herri izateari uzten badio, ez baita familia batzuen bizitokiaren izena bakarrik galduko, herri horretako hizkera ere galdu egingo da, ondare bat galduko da, izana ere galdu egingo da. Ekin diezaiogun bada, *rutinaren morroi bihurtu* gabe, *Udaberri berri* bat eduki dezagun!

Ezin dugu gazte talde edo belaunaldi baten etxebizitza beharrezko eskaera multzoaren zain egon, ez baita nahikoa izango horrekin. Eskaeraren aurretik, eskaintza eduki behar dugu.



Jaime Izquierdo - Experto en desarrollo rural

“Lo más destacable es el valor, respeto y reconocimiento que la sociedad vasca tiene hacia su mundo rural”

Jaime Izquierdo es un geólogo y escritor asturiano, defensor de los valores y la conservación de la vida en el mundo rural y de la naturaleza. En esta entrevista concedida a la revista “Gure Lurra” nos ha dado su visión sobre el futuro del sector primario y sobre el despoblamiento rural.



Lleva más de treinta años trabajando en el terreno del despoblamiento rural codo a codo con los y las agricultoras. ¿Estamos a tiempo de cambiar el rumbo del vacío rural hacia el poblamiento?

Sí, pero hemos perdido mucho tiempo y estamos muy lejos de llegar a ese perfil profesional del campesino como gestor integral del territorio y a esos pueblos inteligentes. Por cierto, con Eusko Ikaskuntza hemos elaborado un documento para cambiar el rumbo de los núcleos rurales que titulamos “¿Qué economía para los pequeños pueblos?”.

En su comparecencia este junio en la Comisión del Congreso de los Diputados para la reconstrucción Económica y Social de España, advirtió de que “el Covid-19 ha venido a decirnos que vamos mal y que parece más que aconsejable cambiar de vida y buscar unos hábitos más razonables”. ¿Lo podría desarrollar?

Sí, creo que como sociedad urbana que somos estamos bastante desquiciados. Y la pandemia ha venido a decírnoslo con más contundencia porque los otros indicadores de desquicie – atascos, horas metido en un coche para ir a trabajar, contaminación del aire, falta de espacio, desarraigo del campo...– parece que ya los teníamos asumidos indefectiblemente a la forma de vida urbana. Creo que es posible otra economía que no se base en la concentración ni en la hipermovilidad. Que sea más tranquila y más gratificante. Y el medio rural y las ciudades pequeñas e intermedias pueden ser más atractivas para esas economías menos agresivas y más saludables.

“ Es posible otra economía que no se base en la concentración ni en la hipermovilidad”

Podríamos decir que debido a la crisis sanitaria que vivimos, la sociedad se ha concienciado sobre la importancia de contar con un primer sector fuerte, capaz de proporcionar productos y materias de primera necesidad?

Sí. Y creo que se ha abierto un horizonte de oportunidad para recuperar los sistemas agroecológicos o agroalimentarios localizados y de proximidad en el entorno de villas, ciudades, aldeas y pueblos.

“ Se ha abierto un horizonte de oportunidad para recuperar los sistemas agroecológicos o agroalimentarios localizados y de proximidad”

Aun siendo asturiano, conoce el territorio guipuzcoano y su riqueza rural mejor que muchos de nosotros y nosotras. ¿Cómo definiría la Gipuzkoa rural?

Bueno, conozco algo gracias a que tengo buenos amigos ‘giputxis’ que me enseñan su tierra. Hay dos formas de referirse al medio rural guipuzcoano. La primera su definición, que es extensiva a todo el País Vasco, y que saco de un libro de María José Ainz Ibarrondo: Gipuzkoa es el país de los caseríos en el país de las industrias. Y la segunda, algo que tiene que ver con la esencia y la proyección –yo diría antropológica– que la tierra tiene tanto en el alma de los vascos como, y muy importante, en la construcción política y social del país.

¿Qué es lo que más destaca del mundo rural guipuzcoano, resaltaría algo?

Lo más destacable es el valor, respeto y reconocimiento que la sociedad

vasca en su conjunto tiene de su mundo rural. A partir de ese respeto y de esa estimación de valor –nadie desprecia lo que respeta y valora– es posible pensar en una ruralidad de futuro, posindustrial por definición.

¿Qué palancas de progreso o de transformación tiene el medio rural guipuzcoano?

Las palancas de transformación caminan en tres direcciones: primera, un mayor abastecimiento del producto de proximidad en la cesta de la compra de las ciudades y villas; segunda, generar las bases para que los baserritarras se conviertan en gestores integrales del territorio, empezando por los suelos, el paisaje y el funcionamiento óptimo de los agroecosistemas; y tercera, diversificar la economía rural a partir del aprovechamiento combinado de recursos locales, aprovechamiento de energías renovables y diversificación.

¿Dónde se sitúa Gipuzkoa en cuanto al desarrollo rural y equilibrio territorial, en comparación con Asturias u otras regiones de Europa?

No es por quedar bien. Pero lo sitúo a la cabeza. Asturias, y otras muchas regiones españolas, tienen un medio rural mucho más rico y variado, sin duda. Pero sin embargo, esa ruralidad no acaba de convertirse en eje central del discurso político regional más allá de imágenes, eslóganes o manifestaciones de cariño aunque últimamente se aprecien cambios en el sentido de una mayor valoración. Quizá nos pesa el descalabro que supuso que vivimos cuarenta años en una dictadura que denostó lo rural y relacionó el prestigio social, la cultura y la “inteligencia” con lo urbano. Con respecto a Europa, quizá Iparralde está un punto por encima de Gipuzkoa en cohesión rural y conexión rural-urbana y, por supuesto, en Francia la estima y el respeto por lo rural es “marca de la casa” ya desde tiempos de la Revolución. Por no hablar de la calidad de las políticas territoriales tanto en términos de ordenación como de cohesión y desarrollo en las que Francia tiene un liderazgo indiscutible.

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren 10. urteurrena

“450.000 herritar inguru zerbitzatu ditugu”

Gipuzkoako naturguneetatik goatzeko ateak zabaltzeaz arduratu da Gipuzkoako Parketxe Sarea azken 10 urte hauetan. Urtero 50.000 bisitaritik gora erakartzen dituen eskaintza honek, arrakasta bide beretik jarraitu nahi du, eta aurrera begirako urratsak ilusioz eta anbizioz emateko grina du.



Luis Mari Zaldúa

Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren Zuzendaria

Luis Mari Zaldúak hamar urte daramatza GPS zuzentzen, eta orain arte eginiko bidez eta aurrera begirako erronkez galdetu diogu.

Gipuzkoako natura parkeetako ateak izan zarete hamar urte hauetan, zein izan dela esango zenuke fundazioak gizarteari egin dion ekarpena?

Natura parkeak eta oro har natur eremua, beste era batera, beste begirada batekin, ikusten laguntzen ahalegindu gara; alegia, Gipuzkoako natur eremuak, gehienetan behintzat, kultur paisaiak direla jabetuarazten saiatzen gara, azken batean, naturaren eta gizakiaren harremanaren ondorioz sortutako paisaiak direla ikusarazten.

Zein da parketxeetara zuzentzen den bisitariaren profila?

Lau profil bereiz daitezke. Batetik, lehen hezkuntzatik batxilerrera bitarteko ikasleak, gure eguneroko jardunean garrantzia handia dutenak: 10.000-12.000 ikasletik gora artatzen ditugu urtean; Gipuzkoaren etorkizuneko harrobia dira. Bigarren profila familiak dira: asteburuetan datoz nagusiki eta oso polita eta interesgarria izaten da belaunaldi bat baino gehiago elkarrekin jardueretan parte hartzen eta natura eremuaz gozatzen ikustea. Hirugarren taldean hiruogeitik gorako herritarrak daude: erretiratu berriak edo erretiratzekotan daudenak, baina oraindik sasoi betean daudenak, bigarren gaztaroa bizitzen ari direnak nolabait esan, eta, ondorioz, berriro gauza berriak deskubritzeko eta ikasteko gogo biziz etortzen direnak. Asko emakumezkoak dira, eta jakin-min handia nabaritzen zaie. Oso esker oneko publikoa da. Azken multzoan, jorratzen ditugun gai zehatzen inguruan interesa duten herritarrak daude (saguzarrak, narrastiak, zuhaitz lepatuak, arkeologia, astronomia....).

Arditurriko meatze erromatarretatik, euskal mitologiara, lorategi botaniko, burdinola eta mendi ibilbide ikusgarrietaraino. Gipuzkoan ditugun ondare natural eta

kulturalak izugarriak dira, zer da bisitaria gehien erakartzen duena?

Zenbait urtetan txondorrak egin izan ditugu parketxe batzuetan eta oso jarduera arrakastatsuak izan dira. Bestalde, Allekun (Ataunen) ‘Gentilak eta Olentzero’ ikuskizuna eskaini dugu eta horrek ere oso erantzun ona izan ohi du. Hala berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzen duen Igeldoko arrano etxean zaindutako eta sendatutako hegaztien askaketak egiten ditugu basozainen laguntzaz, eta jendeari izugarri gustatzen zaizkio. Orokorrean, jendea gustura ateratzen da antolatzen ditugun jardueretatik; gainera, badugu publiko bat gure ekintzekiko fidela dena. Lehendik ezagutzen duten hori beste betaurreko batzuekin ikusarazten saiatzen gara; ordu arte zuhaitz arrunt bat bezala ikusten zutena, energia iturri (jasangarri) etengabe eta



Arditurriko meategia.



Orientazio jokoa Arditurrian.



Bisitariak Allekuko basoan.



Haurrak artoa aletzen Barandiaran museoan.



Iturrarango erletegia.

bioaniztasunaren gordailu moduan ikus dezaten, esaterako. Jendea gauza horietaz maiteminduta geratzen da. Gure ekuazioa honako hau da: ezagutu, maitatu eta zaindu. Atsegin duen zerbaitek ezagutzen duenean, Behin ezagutza izanik hurrengo urratsa elementu horren zaintzaile bihurtzea da. Badakizu: zaindu maite duzun hori...

Eta zu pertsonalki gehien liluratzen zaituena?

Patziku Perurena idazle eta lagunak dioen moduan, ez dago lurra edo izadia bezain liburu eder eta aberatsik. Gipuzkoa kultur paisaia handi bat da eta gizakiaren eskua edo aztarna atzeman daiteke lekuoro. Mendira joatean ohartzen zara zu zabiltzan gune horretan aurrez beste asko ibili direla, eta, nolabait esan, beraiekin harremanetan jartzen zara. Niretzat paisaia gauza garrantzitsua da, oso. Paisaia ikusgarri batek zure benetako neurriaren berri eman dizu eta zure

buruarekin egoteko aukera errazten; hori hirian lortzea nahiko zaila da. Tokiei dagokienez, asko dira atsegin ditudanak, baina batzuk esatearren, Aralarko Igaratza, Zaldibiko Arkakan dagoen Osinberde, Oieleku basoa, Iturraran baserriaren gaineko kaskoa, nahiz Arantzazu aipatuko nituzke.

Eta aurrera begira, zein dira Parketxe Sarea Fundazioak datozen urteetan dituen erronkak?

Epe motzera begira helburu nagusia 2019an egiten genituen jarduerak berriro ere egiteko aukera izatea da, baina, jakina, hori ez dago gure esku. Eta epe luzera begira, berriro, fundazioa birsortu edo berrasmatu beharko genuke, nolabait esateko. Hamar urtean 450.000 herritar baino gehiago zerbitzatu ditugu eta burdinola eta meategia kontuan hartuz gero, 500.000 herritar ingururekin izan dugu harremana; pozik gaude alde



horretatik. Birsortze edo berrasmatzeko horretan ondo egin dugunari eutsi eta dauzkagun indarguneak sendotzen saiatuko gara. Erronketako bat izan daiteke gure jarduerak eta gure sarea natura parkeetatik eta erabilpen publikoko mendietatik haratago zabaltzea. Gipuzkoan une honetan ingurumen heziketa edota sentikortzea helburu duten 30 azpiegitura daude gutxienez; horietatik sei fundazioak kudeatzen ditu. Beraz, gure erronketako bat elkarlana bultzatu, sarea zabaltzea eta beste zentroekin koordinatuta lan egitea da, Gipuzkoari eta gipuzkoarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

ALBISTE LABURRAK

Banda zabal ultraazkarraren urratsak

Lehen deialdiaren bitartez Gipuzkoako 2.000 baserri ingurutara iritsi da Banda Zabal Ultraazkarra, horietatik gehiengoak Tolosaldean (804), Goierriin (784) eta Urolak Kostan (295) kokatzen dira; eta, Deba bailaran gainontzekoak.

Aurrera begira beste bi deialdi ditu eskuartean Aldundiak: Bigarren deialdiari dagokionez, Telekomunikazio eta Azpiegitura Digmaletako Estatu Idazkaritzaren (SETID) aldeko txostena lortu berri du eta, orain, aurreko deialdian barreiatu gabe geratu ziren eremuak estaltzeari ekingo dio. Horretarako beste 2.000.000 euroko aurrekontua du eta helburua 1000 baserri ingurutara iristea da.

Hirugarren deialdiari dagokionez, Aldundiaren helburua da 2.500 biztanletik gorako herrietako landa eremuen barreiatzea, udalen eta GFaren elkarlan tekniko eta ekonomikoaren bidez.



Nekazaritza eta Lurralde Orekako zuzendaritzak barne egitura berria izango du

Helburua da erakundearen barne funtzionamendua, antolaketa eta kudeaketa eredua hobetzea, horrela nekazariei zein gizarteari orokorrean, zerbitzu hobe eta eraginkorrago bat eskaini ahal izateko. Aldaketak 2019-2023 Gobernu Plana zein Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako alorrerako zehaztutako Kudeaketa Plana oinarri hartuta egin dira.

Zuzendaritzaren antolaketa berria:

Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia /
Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial

**Laguntzen eta
Erregistroen Zerbitzua /**
Servicio de Ayudas y
Registros

**Ikuskapen eta
Kontrol Zerbitzua /**
Servicio de Inspección y
Control

**Nekazaritzako eta
abeltzaintzako
Sustapen eta Osasun
Zerbitzua /**
Servicio de Promoción y
Sanidad Agro-ganadera

**Landa Garapeneko
eta Lurralde Orekako
Zerbitzua /**
Servicio de Desarrollo
Rural y Equilibrio
Territorial

Lau hektarea berri bideratuko dira nekazaritzara zuzendu nahi duten gipuzkoarrentzat

Nekazaritza Lurren Funtza proiektuak erabiltzaileengan izan dituen emaitza onak ikusirik, Gipuzkoako Foru Aldundiak lau hektarea berri bideratuko ditu nekazaritzara zuzendu nahi duten gipuzkoarrentzat. Lur hauen esleipenerako deialdia

udaberrian argitaratzea aurreikusten du Aldundiak, eta interesa duten gipuzkoarrek bertan izen-eman beharko dute. Lursail berriak Lezon kokatzen dira, Olaizola baserriaren lurretan. Lezoko Udalarekin elkarlanean borobildu da proiektua.



Un millón y medio más para las ayudas a inversiones en explotaciones

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha decidido ampliar la línea de subvenciones para inversiones en explotaciones agrícolas y ganaderas. Para la convocatoria de este año se había previsto una ayuda de 2.600.000 euros; sin embargo, al ver el impacto que ha tenido el Covid-19 en el primer sector y ante la alta

solicitud de ayudas, el ente foral ha aprobado un gasto adicional de 1.526.241,07 euros, con lo que en total se destinarán 4.126.241 euros. De esta manera, se ha conseguido responder a todas las peticiones que cumplen con los requisitos exigidos.

Lehen sektoreko partaidetza dinamikan Deustuko Unibertsitatea sartu da

Lehen sektorea mundu zientifikoarekin eta akademikoarekin lotu eta aukera berriak jorratzen hasteko helburuarekin lehen sektoreko partaidetza dinamikan sartu da Deustuko Unibertsitatea. Horretarako, lehenik eta behin Deustuko

Unibertsitatea lehen sektorea bera eta bere ikuspegia aztertzen hasiko da. Jarraian, lehen sektorerako lantzen diren gaien inguruan, beste esperientzi eta tokietako ideiak proposatuko ditu unibertsitateak.



El acto de recepción del programa Gazte Plana

El 19 de octubre se celebró un encuentro de reconocimiento a los y las jóvenes que se incorporan al sector mediante el programa anual de la Diputación Gazte Plana. El acto se llevó a cabo en el Parquetxe Iturraran de Pagoeta y durante el coloquio

se recogieron diversas aportaciones, reflexiones y propuestas tanto de los y las jóvenes como de agentes del primer sector. En la convocatoria 2020 han sido 23 los y las beneficiadas del programa.



De ahora en adelante los y las baserritarras podrán solicitar las quemas desde sus casas

La Diputación Foral de Gipuzkoa acaba de poner en marcha una nueva aplicación de tramitación de quemas para baserritarras y guardas forestales. La solicitud de un permiso de quema se venía realizando en impresos de papel, que tenían que ser enviados por correo interno desde las Oficinas Comarcales Agrarias

(OCA) hasta la emisora del Servicio de Montes, para que pudiesen ser dados de alta en una base de datos interna.

Mediante esta aplicación se podrán realizar las tramitaciones al momento, desde su dispositivo electrónico, sin tener que desplazarse a la oficina.

Life irekibai proiektuaren emaitzak ikusgai dira dagoeneko

Life Irekibai proiektua Gipuzkoak eta Nafarroak partekatzen dituzten ibaien konektibitatea eta habitaten hobekuntza ditu helburu eta bide horretan hainbat ekintza egin dira: uraren jariora oztopatzen zuten hamaika

presa eraitsi, europar bisoia babesteko neurriak hartu, eta izkokinaren birpopulazioan laguntzeko zein biodibertsitatea hobetzeko ekintzak burutu, esaterako. Emaitzak begi bistakoak dira dagoeneko.



Gazteen ekimen berritzaileak lehen sektorean

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Mondragon Unibertsitatea ekintzailetasuna bultzatzeko esparruak aztertzen ari dira, gazteak eta ekimen berri eta berritzaileak lehen sektorean txerta daitezen. Horren harira,

Leinn graduako ikasleak landa ingurunera gerturatu eta enpresa proiektuak arlo honetan sortzera animatzeko helburuarekin elkarlan dinamikak martxan jarri dituzte.



Covid-19aren aurreko argazkia.

Asier Hilario, nuevo presidente de la Comisión Internacional del Patrimonio Geológico

La organización International Union of Geological Sciences (IUGS) ha nombrado presidente de la Comisión Internacional del Patrimonio Geológico a Asier Hilario (Tolosa, 1977), director científico del Geoparque de

la Costa Vasca. La IUGS está compuesta por 121 países del mundo, con más de un millón de científicos afiliados, y es una de las mayores asociaciones científicas del mundo.



XX. Concurso de Explotaciones Ganaderas de Euskadi

El Gobierno Vasco y las tres diputaciones han premiado a las mejores explotaciones ganaderas 2020 de Euskadi. Han participado 284 explotaciones y se han repartido quince premios; tres a nivel de Euskadi y doce a nivel de territorio histórico.

En la edición de este año, los premiados en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca han sido la explotación guipuzcoana Iztueta Elkartea (Lazkao) en vacuno de leche;

el alavés Victor Meabe (Goiuri) en vacuno de carne; y la vizcaína C.B. Mañondo (Izurtza) en ovino de leche.

En Gipuzkoa, los premiados han sido S.C. Itzibar (Zizurki) en vacuno de leche, Mikel Elgarresta (Urretxu) en vacuno de carne, Jose Ignacio Ugartemendia (Berastegi) en ovino de leche y Javier Muñoz (Zerain) en mejor forraje.



Grupo de trabajo para apoyar las ferias de productos locales

En el marco del Pacto Verde Europeo, la Estrategia de la Granja a la Mesa aprobada recientemente por la Comisión Europea aboga por una transición a un sistema alimentario sostenible que proteja la seguridad alimentaria y el acceso a dietas sanas. Una estrategia que favorece al sector primario, ya que se prima el producto local de proximidad, de temporada y de calidad.

Desde la Diputación Foral de Gipuzkoa se quiere aprovechar esta nueva ola que viene de Europa, y por ello, en colaboración con Erika Fundazioa y Landaola se han constituido grupos de trabajo con Asociaciones de Desarrollo Rural y Ayuntamientos, con el fin de consensuar y establecer la normativa más adecuada para regular la Venta de Proximidad en Euskadi. Para así seguir apoyando a los y las baserritarras de Gipuzkoa en la venta de sus productos.



Sektoreko eragileen azterketa diagnostikoa


B+I enpresa Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreko eragile ezberdinen inguruko azterketa diagnostikoa egiten ari da. Egitasmo honen helburua 20-30 urte ondoren eragile hauek egungo beharrei zein

neurritan erantzuten dieten aztertzean datza eta baita zein berrantolaketa egin beharko litzatekeen lantzea ere. Beti ere, eraginkorrak izan gaitzen eta sektoreari eta landa inguruneari hobetu erantzuteko bidean.



Covid-19aren aurreko argazkia.

Gipuzkoako Foru Aldundiko ateak zabalik



INFORMAZIO BULEGOA ETA ERREGISTROA				
TELEFONOA	TELEFONOA	ESKAKIZUNAK	HELBIDEA	ORDUTEGIA
943 112 198	943 431 154	Gertubide	Gipuzkoa plaza z.g., laugarren solairua. 20004, Donostia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara

HERRIA	TELEFONOA	HELBIDEA	ORDUTEGIA	EMAILA
Azpeitia	943 415015 943 415016	Julian Elorza 3, behea. 20730, Azpeitia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_azpeitia@gipuzkoa.eus
Bergara	943 415068 943 415065	Urteaga 21, behea. 20570, Bergara	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_bergara@gipuzkoa.eus
Elgoibar	943 415079 943 415077	Kalebarren, 1-2. 20870, Elgoibar	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_elgoibar@gipuzkoa.eus
Hernani	943 415086 943 415087	Ibaiondo poligonoa 27, 2. pisua. 20120, Hernani	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_oartzun@gipuzkoa.eus
Ordizia	943 415099 943 415100	Santa Maria 4, behea. 20240, Ordizia	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_ordizia@gipuzkoa.eus
Tolosa	943 415127 943 415121	Nafarroa Hiribidea 6-2. 20400, Tolosa	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_tolosa@gipuzkoa.eus
Zarautz	943 415147 943 415148	Mitxelena 87. 20800, Zarautz	Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 8:30etatik 14:00etara	oca_zarautz@gipuzkoa.eus

Gipuzkoako parketxe sarea
Helbidea: 20567 Aranzazu, Guipuzkoa
Telefona: 943 78 28 94
Webgunea: gipuzkoanatura.eus

Etorlur
Helbidea: 1, Ibaiondo Ind., 27, 20120 Hernani
Telefona: 943 33 75 56
Webgunea: etorlur.eus

Eman zure iritzia eta irabazi sagardo kaxa bat:

Gure Lurra aldizkariaren hirugarren alean gaude eta zure iritzia garrantzitsua zaigu hobetzen jarraitu ahal izateko. Hori dela eta, anima zaitez behean topatuko duzun galdetegia betetzera; erantzun guztien artean Euskal Sagardoa jatorri-deituradun sagardo kaxak zozketatuko ditugu. Otsailaren 16ean burutuko da zozketa eta irabazleekin harremanetan ipiniko gara etxera sagardo kaxa bat helarazteko.

- **EPEA:** Otsailaren 14a osatzeko azken eguna.
- **GALDETEGIRA SARTZEKO ESTEKA:**

<https://labur.eus/S5fxG>



ZOZKETA



Aldizkariaren bertsio
digitala kontsultatu:
www.gipuzkoa.eus/eu/web/landaeremua/aktualitatea/argitalpenak

Harremanetarako: gurelurra@gipuzkoa.eus

Hurrengo aleak emailaz jaso nahi dituzu?

Lagundu iezaguzu paperaren erabilera murrizten. Gure Lurra aldizkariaren hurrengo aleak email bidez jaso nahi badituzu, bidali iezaguzu mezu bat. Postaz jasotzeko zerrendatik kendu eta email bidez jasotzekora gehituko zaitugu.

Gure zerrendetatik baja eman

Aldizkaria Gipuzkoako lehen sektoreko eragile eta ustialekuen jabeek dago zuzendua. Zu zerrenda horretan zaitugulako jaso duzu aldizkaria. Dena den, ez baduzu aurrerantzean jaso nahi aukera duzu baja emateko, goian aipaturiko helbidera idatziaz.

Gure zerrendetan alta eman

Gure Lurra Aldizkariaren gain, Gipuzkoako Landa Inguruneko sailetik aldikako komunikazio ekintzak burutuko dira. Zure email edo/eta telefona bidali iezaguzu hartzaileen artera gehitu zaitzagun.



Erosi geurea,

Etxekoak

Bertakoak, kalitatezkoak, gureak.

Orain, inoiz baino gehiago, erosi
ditzagun gure baserritarren
produktuak.

erosi Gipuzkoa